



Mutrikuko Udala

HERRITARREN ELKARBIZITZA ETA ESPAZIO PUBLIKOAREN ERABILERA ETA GARBIKETA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA

I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea.

Ordenantza honek elkarbizitza arauak ezartzea du oinarrizko xede eta baita haiek bakean, askatasunean eta eskubide zein betebeharr berdintasunean bete daitezen zaintzea ere.

Helburu hori lortzeko, Ordenantza honek elkartasunean eta elkarrekiko errespetuan oinarritutako herritarren talde bizitza arautzeko xedapenak ematen ditu.

2. artikulua. Aplikazio eremua.

Ordenantza hau Mutrikuko udalerrri osoan aplikatuko da, eta herritar zein bisitari guztiek betetzekoa da.

3. artikulua.

Ordenantza honen xedapenak ez betetzea eta ordenantzaren edukiaren ezjakintasunean babestea ez da inorentzat mesedegarri izango.

II. KAPITULUA. JOKABIDE ZIBIKOAZ

4. artikulua. Herri altzariak eta espazio publikoak babestea.

1. Herrian dauden herri altzariak egoki eta behar bezala erabiltzeko obligazioa dute herritar guztiek, altzari horiek errespetatu egin behar dira, ongi kontserbatzeko eta normal erabiltzeko moduan egon daitezen.

2. Debekatuta dago herri altzariak eta espazio publikoak zikindu eta hondatzen dituzten edo honda ditzaketen ekintzak egitea, eta, bereziki, honako ekintza hauek:

a) Eserlekuak beren erabilera naturalaren aurka erabiltzea; ezin dira zapaldu, ezin dira dauden lekuetatik kendu, ez hautsi, ez zikindu eta, oro har, ezin da haien erabilera kaltetu edo kontserbazioa hondatuko duen ezer egin.

b) Debekatuta dago jokorako tresnak modu txarrean eta kaltetu edo hausteko moduan erabiltzea, haurrentzako jokoak ezin dituzte erabili ez helduek ez eta, adin txikikoak izan arren, jokoan bertan adierazita datorren adina gainditzen dutenek ere.

c) Debekatuta dago zaborrak, pipak, fruitu lehorren edo antzekoen azalak, txikleak edo paperak zeregin horretarako dauden paperontzietatik kanpo botatzea.

d) Debekatuta dago paperontziak irauli edo beren tokietatik ateratzea, eta baita haien itxura eta osotasuna honda dezaketen beste ekintza guztiak ere.

e) Debekatuta dago hiri hondakineterako paperontzi eta edukiontzietan tresna edo objektu arriskutsuak botatzea, osasun hondakinak, pila zein bateria, animalia hondakinak, e.a. bazelakoak.



Mutrikuko Udala

- f) Debekatuta dago iturri publikoetako hodiak, kanilak eta gainerako elementuak manipulatzeko haien funtzionamendu normaletik kanpo.
- g) Debekatuta dago herrian dauden zuhaitz zein beste landare, farola, eskultura eta gainerako apaingarriak kaltetuko dituen edozein ekintza edo manipulazio, eta baita elementu horiek hondatzen dituzten ekintzak ere.
- h) Debekatuta dago sua eta ekintza piroteknikoak egitea udalaren eta alor horretan eskumena duten administrazioen derrigorrezko baimenik gabe. San Joan bezperako suak eta antzekoak egiteko, udalaren baimena lortu beharko da aurrez jakinarazita.
- i) Debekatuta dago animaliei espazio publikoko gizakien kontsumorako iturrietako grifoetatik zuzenean edaten uztea.
- j) Debekatuta dago iturri, ibai, erreka edo urmaeletan edo espazio publikoan hidrokarburoak, zaborra orokorrean edota usain txarrak eta eragozpenak sortzen dituzten substantziak botatzea.

5. artikulua. Berariazko debekuak.

1. Debekatuta dago bide publikoan otsailaren 16ko 230/1998 Errege Dekretuak 3. sailkapeneko petardoak erabiltzea, maila ertaineko arriskua dutenak eta kalean erabiltzekoak direnak. Debekatuta dago ere bengalak erabiltzea, eta debekatuta dago edozein motatako objektuak jaurtikitzen dituzten tresna edo gailuak erabiltzea, esate baterako, arkuak, zerbatanak, tiragomak eta bolak botatzen dituzten pistolak, hala ere Mutrikuko Udalak, egoki ikusten badu, gertakizun zehatzetan material piroteknikoa erabiltzea arautu dezake.

2. Debekatuta dago oinezkoentzako plazetan eta espaloietan bizikleta, motozikleta, ziklomotor, patin edo beste edozein ibilgailu edo motordun ibilgailutan ibiltzea modu ez egokian edo oinezkoengan arriskua sortuz, debeku honetaz kanpo egonik elbarriturik dauden pertsonen beren ibilgailuetatik jeitsi edo igotzeko erreztasunak eman behar direnean.

3. Debekatuta dago fatxadetatik aurrera ateratzen diren loreontziak, jardinerak eta abar jartzea, eraikineko berezko elementuek behar bezala eusten ez badiete edo bide publikoko oinezkoen zein bere ondasunei arriskua eragin badiezazkiekete.

4. Auzokoen atsedena errespetatzeko eta etxean bizikidetzara arrunta nahasiko duen zaratarik ez egiteko betebeharra dute herritar guztiek. Arrazoi horregatik, etxe barruan ezin da beste edozein motatako zaratarik egin –bereziki gaueko 22:00etatik goizeko 08:00ak arteko ordutegian lanegunetan eta goizeko 10:00ak arte jaiegunetan– etxean konponketa material edo mekanikoak, altzari edo etxetresna elektrikoak aldaketak egin behar direnean edo beste edozein arrazoirengatik. Nolanahi ere, horiek ezin izango dituzte 30 dB(A)-ak gainditu harrera puntuan.

5. Patio, terraza, galeria, merkataritza lokal, garaje, balkoi edo beste espazio itxi edo irekietan ezin izango da beren soinu, oihu edo kantuekin, edo beren eginkari fisiologikoak egiten dituztelako auzokoen traba egin edo auzokoak gogaitu ditzaketan animaliarik utzi.

6. Alarma sistema duen edo jartzeko asmoa duen herritar zein enpresa edo komertzio arduradun oro behartuta dago Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak zehaztutako protokoloari jarraitu beharko dio.

6. artikulua. Parke eta lorategi publikoak.

1. Herritarrek herriko parke eta lorategi publikoak errespetatzeko obligazioa dute.

2. Parke, lorategi, parterre eta loreontzietako eta bide publikoan aldatutako landare espezie desberdinak (zuhaitzak, zuhaixkak, belarkiak eta garaiko landareak) ongi kontserbatu eta mantendu ahal izateko, debekatu dago honako ekintza hauek egitea:

a) Landareak lapurtzea (zuhaitzak, zuhaixkak, gramineak eta garaiko landareak).



Mutrikuko Udala

- b) Zuhaitzen azaletan gauzak idatzi edo margotzea, punta zorrotzak sartzea, zuhaitz horiei eskailerak edo tresnak eta aldamioren euskarriak lotzea eta kartelak jartzea.
- c) Zuhaitzak zein zuhaixkak bota, inausi eta haustea.
- d) Saiatu behar da konpainiako animaliek ez dezaten zuhaitzik edo berdeguneetako edozein elementu hautsi.
- e) Aldi baterako bada ere, obra materialak zuhaitzetan pilatzea eta haietan edozein produktu toxiko isurtzea. Berdeguneetan materialak pilatu (aldamioa jarri) behar izanez gero, baimena eskatu beharko da eta, ondoren, haiek lehen zeuden bezala utzi.
- f) Berdeguneetan, haiek hondatzeko edo duten estetika eta erabilera ona kaltetzeko moduko zaborrak, hondakinak, harriak, legarra edo beste edozein produktu botatzea.
- g) Soropil eta lorategietan, espaloietan edo oinezkoentzako guneeetan gorotzak uztea.
- h) Parke eta lorategietan sua piztea.
- i) Bizikleta, motor do ziklomotoretan ibiltzea, hartarako egokitu gabe edo zoleztatu gabe dauden guneeetatik kanpo.
- j) Ibilgailuak aparkatzea.
- k) Parke eta lorategietan etxeko animaliak aske uztea, salbu horretarako egokitutako eremuak balira.

7. artikulua. Droga eta edari alkoholdunen kontsumoa.

1. Udaltzaingoak berehala konfiskatuko ditu drogak, substantzia estupefazianteak, substantzia psikotropikoak eta legez kanpoko arma eta tresna arriskutsuak.
2. Bide publikoan edari alkoholdunak kontsumitzeari dagokionez, debekatuta dago:
 - a) Bide publikoan edari alkoholdunak saldu eta kontsumitzea, terraza edo kanpoko mahaitxoetan izan ezik, baina, nolana ere, dagokion udal lizentzia beharko da.
 - b) Ostalaritza establezimenduek kanpoan kontsumitzeko edariak saldu edo hornitzea, ez bada terrazetan edo beharreko udal baimena duten beste instalazio batzuetan kontsumitzeko.
 - c) 18 urtetik beherakoei edari alkoholdunak saldu eta hornitzea edo horrelakorik kontsumitzea, bai salmenta lekuetan bai kontsumo lekuetan.

Era berean, establezimendu eta komertzioetako arduradunen kontroletik ihes egiteko edari alkoholdunak erosi edo gero adin txikikoei ematen dizkieten pertsona nagusiak adin txikikoei edari alkoholdunak hornitzearen erantzule izango dira.

Segurtasun arrazoiengatik, Udalak baimendutako jendetza handia biltzen duten ikuskizunetan, izaera bereziko ekitaldietan, hala nola, herriko jaietan, patronaletan, inauterietan eta gabonetan, eta bestelako ekintza jendetsuetan, esate baterako kontzertu eta antzezoetan, plastikozko edalontziak erabiliko dira. Ezin da inola ere kristal edo beirazko ontzirik erabili, ez eta lata edo antzezik ere.

III. KAPITULUA BIDE PUBLIKOAREN GARBIKETA

8. artikulua.

Herritar guztiek dute, oro har, herria eta, bereziki, espazio publikoak garbi mantentzeko betebeharra.

9. artikulua.

Loreontziak edo landareak bide publikora urik bota gabe ureztatuko dira.



Mutrikuko Udala

10. artikulua.

Debekatuta dago bide publikoa zikin dezakeen edozein jarduera egitea, eta bereziki debekatuta dago:

- Bide publikoan ibilgailuak garbitzea.
- Motorraren olioia aldatzea edo bide publikoa zikin dezakeen edozein motatako isurkari manipulatzeari.
- Bide publikoan ibilgailuak konpontzea.
- Bide publikoan kaka eta pixa egitea.
- Zaborrak edo hiri hondakinak manipulatzeari edo miatzeari, eta haiek biltzea oztopa dezakeen jarduerarik egitea: Barreiatzea edo ontziak aldatzea.
- Bide publikora txikleak, zaborrak eta hondakinak botatzeari edo bertan uzteari.
- Txakur gorozkiak bide publikoetan, jolas parkeetan, lorategietan eta, oro har, apaingarrirako edo jendearen joan-etorrirako den beste edozein lekutan uzteari. Kasu honetan Animaliak Eduki eta Babesteko Udal Ordenantza Arautzailea izango da kontuan.

11. artikulua.

Industria edo merkataritza jarduera batek bere inguruetan edo, terrazen kasuan, baimendutako gunean zikinkeria sortu ohi badu, establezimenduko titularrak garbi eduki beharko du zikindutako bide publikoaren zatia, dagozkien lizentziei aplikatu beharreko erregimenetik etor daitezkeen neurri zuzentzaile eta gainerako betebeharrei kalterik egin gabe.

12. artikulua.

Erakusleihen, establezimendu, salmenta puntu eta antzekoen garbiketa kontu handiz egingo da, bide publikoa ez zikintzeko moduan; eta bertan dabiltzanei eragozpenik ez sortzeko orduetan. Establezimendu itxien jabeek fatxaden apainketaz arduratu beharko dute.

13. artikulua. Toldoak eta pertsianak.

Toldo eta pertsianei dagokienez, Udal Ordenantzak xedatutakoa bete beharko dute.

Beheko solairuetako lokaletako toldoak eta pertsianak kontserbazio eta garbiketa egoera onean mantenduko dira, eta berriro egingo dira kanpoko itxurak eskatzen duenean.

14. artikulua. Errotuluak, plakak eta gainerako bereizgarriak.

Edozein errotulu, plaka edo bereizgarri bide publiko aldera jartzeko, beharreko lizentzia lortu beharko da.

Horiek garbi edukiko dira eta hondatuak aldatu egingo dira.

15. artikulua.

Generoa soltean edo edozein materia ontziratu gabe garraiatzen duten ibilgailuak bide publikora isurketarik ez egiteko moduan kargatu eta ekipatuko dira.

16. artikulua. Zamilanak.

1. Edozein ibilgailuren karga eta deskargak egitean zikindutako espaloi eta galtzadak berehala garbituko dira, lan horiek bukatu bezain laster.

2. Garbiketa horiek ibilgailuen jabeek egingo dituzte eta, subsidiarioki, karga edo deskarga egin den establezimendu edo finkaren titularrek.

3. Garbiketa udal zerbitzuek egingo dute, baina gastuak haiek ordainduko dituzte.



Mutrikuko Udala

17. artikulua. Erabilera berezi edo pribatiboak ukituriko eremuaren garbiketa.

1. Erabilera arrunt berezi eta pribatiboaren ondorioz bide publikoa zikintzen bada, erabilera horien baimena duten edo esleipendunak diren pertsona fisiko edo juridikoen erantzukizuna izango da. Sortzen dituzten hondakinak bota edo edukitzeko ontzi homologatuak jartzeko eskatu ahal izango die Udalak, eta ontzi horiek garbitu ere egin beharko dituzte.

2. Terraza eta mahaien garbiketari dagokionez, titularrek egin beharko dute ordubeteko epean, establezimendua ixten den unetik aurrera kontatuta. Dena dela, egun osoan garbi eduki beharko dira, garbiketa eta higieze baldintza egokietan, eta, horretarako, erratza pasako da eta garbiketa lanak egingo dira aldiaren behin.

3. Terrazen kudeaketa hondakinak ez sortzeko moduan egingo da.

18. artikulua.

Finka eta eraikinen jabeek haien elementuen apaindura publikoa gordetzeko obligazioa dute. Fatxaden, sarreren eta, oro har, higiezinak dituen eta bide publikotik ikusten diren arkitektura elementuen zein higiezinaren osagarrien (antenak, tximiniak) garbiketa eta mantentze lana egin beharko dituzte.

IV. KAPITULUA OBRAK GAUZATZEA

19. artikulua.

1. Egiten diren jarduera eta obra guztiek, bide publikoa zikindu ez dadin, beharreko neurriak hartzeraz behartzen dute titularra, derrigorrezko lizentzietatik datozen baldintzak betetzeaz gain. Era berean, obra horrek ukituriko eremua behar adina aldiz garbitzeko eta sorturiko hondar materialak erretiratzeko obligazioa izango du titularrak.

2. Udalak garbiketa lanak egiteko eskatu ahal izango dio obraren arduradunari.

3. Eraikitze, berritze edo eraiste lanak direnean, obra lizentziaren titularra izango da obra horiek ukituriko bide publikoaren garbiketaren erantzulea.

20. artikulua. Obraren babesa.

1. Zikinkeriarik ez biltzeko, bide publikoa ukitzen duten edo uki dezaketen lanak edo obrak egiten dituzten pertsonak obra hori babestu egin beharko dute inguruan elementu egokiak jarrita, obrako lurra eta soberako materialak baimendutako eremutik edo obra mugatzen duen perimetrotik kanpora isuri eta zabaldu ez daitezela.

2. Debekatuta dago obraren perimetroaren barnean ez dagoen bide publikoan lurra, hondarrak, legarrak eta gainerako materialak uztea, eta baita eusteko eta induskatzeko elementu mekanikoak eta gainerako tresna lagungarriak pilotzea ere, dagokion obra lizentzian udalaren baimen espresaz jasotzen ez bada; eta espazio hori beti garbi edukiko da.

3. Lanegun bakoitza bukatzen denean bide publikoan egindako lan eremuak, lubakiak, kanalizazioak eta abar, garbi eta babestuak utziko dira eta jarri beharreko seinaleak jarriko zaizkie istripurik gerta ez dadin, gauerako balizaje elementuak barne, obra esleitzalea izanik lan hauen erantzule.



21. artikulua. Garbiketa plataforma.

1. Obraren eremuan plataforma bat edukiko da, bertan, ibilgailuen gurpilak eta galtzada zikin dezaketen gainerako elementuak garbitu ahal izateko bide publikora atera aurretik.
2. Prebentzio hori betetzen ez bada, dagokion zigorra jartzeaz gain, obrako ibilgailu horiei bide publikora ateratzea debekatu egingo die Udaltzaingoak.

22. artikulua. Masaderak.

1. Debekatuta dago masadera-ibilgailuan hormigoia garraiatzea, hormigoia hori bide publikora ez isurtzeko, beharreko gailuaren bidez deskarga-ahoa ixten ez bazaio.
2. Debekatuta dago masaderak bide publikoan eta horretarako egokia ez den beste edozein lekutan garbitzea.
3. Aurreko bi atal horiek betetzen ez badira, ibilgailuaren jabea eta gidaria izango dira erantzuleak, eta erantzule subsidiarioa, berriz, obraren sustatzailea edo zerbitzua ematen dioten jardueraren titularrak. Isurtzen den hormigoia eta ukituriko bide publikoa garbitzeko obligazioa dute. Horrez gain, dagozkien zigorrak jarri ahal izango zaizkie.

23. artikulua. Lurren eta obra-hondakinaren garraioa.

1. Lurrak eta obra-hondakinak garraiatzeko ibilgailuek beharreko baldintzak beteko dituzte, bide publikora isurketarik egin ez dezaten.
2. Istripu, iraulketa edo beste edozein gorabeheraren ondorioz karga bide publikora erori edo isurtzen bada, eta bideko segurtasunari begira arriskuak sor baditzake, gidariak ahalik eta azkarren eman beharko diote horren berri Udaltzaingoari, eta, horrekin batera, eroritakoa bildu eta arrisku eremutik kanpo eramaten hasiko dira, garbiketa zerbitzuek eman diezaieketen laguntzaren zain.
3. Lurrak eta obra-hondakinak garraiatzen dituztenek, ukituriko bide zatia berehala garbitzeko obligazioa dute, karga, deskarga eta garraio lanen ondorioz bide publikoa zikintzen bada.
4. Era berean, edozein unetan kendu behar dituzte, eta Udal Agintariak eskatzen duten guztietan, baimendu gabeko lekuetan isuritako lurrak eta obra-hondakinak. Horrez gain, dagozkien zigorrak jarri ahal izango zaizkie.

**V. KAPITULUA
URBANIZAZIO ETA ORUBEEN GARBIKETA**

24. artikulua. Espazio pribatuen garbiketa.

1. Urbanizazio pribatuetako espalioak, igarobideak, galtzadak, plazak eta lorategiak garbitzeko lana jabeek dagokie.
2. Jabeek etxadietako barne patioak, orube partikularrak, merkataritza galeriak eta antzekoak garbitzeko obligazioa dute.
3. Elementu pribatu horien guztien garbiketa egoeraren kontrola eta ikuskatzea Udalak egingo



Mutrikuko Udala

du eta erantzuleei garbitzeko eskatuko die, zeregin horretarako udal zerbitzuek emandako aginduen arabera.

4. Merkataritza lokalen jabeek, bertan jarduera izan edo ez, beren fatxadak egokituko dituzte eraikinaren apaindura, mantentze eta ezaugarrietara, xede horretan zehaztutako zehaztapenen arabera.

25. artikulua. Orube eta lur pribatuak.

1. Orube eta lurren jabeek zabor eta hondakinik gabe eduki beharko dituzte horiek, eta beharreko osasun, higiene, segurtasun eta apaindura publiko baldintzetan. Era berean, arratoi eta era honetako animaliez babestuak beharko dute.

2. Edozein hirigintza jarduketa prozesuan diren eraikin hondatuak behar den bezala itxita edo hesituta egongo dira, bertara haiekin zerikusirik ez duen edonor sar ez dadin.

3. Kapitulu honetako punturen bat betetzen ez bada, Udalak subsidiarioki eta legearen arabera indarrean dauden mugak kontuan hartuta, hartu beharreko neurriak hartuko ditu ondorio horietarako, eta lur horretara sartu ahal izango da aurreko paragrafoetan jasotako helburuz. Sor-tzen diren kostuak jabeek ordainduko dituzte.

VI. KAPITULUA BIDE PUBLIKOAREN OKUPAZIOA

26. artikulua. Irizpide orokorra.

1. Debekatuta dago bide publikoa erakustegi edo beste edozein objektu motarekin okupatzea dagokion baimenik gabe.

2. Debekatuta dago kontsumorako produktuen banaketa zuzenean bide publikora egiten duten makina banatzaileak udalaren baimenik gabe jartzea.

27. artikulua.

Ordenantza honetan araututako helburu komertzialeko jarduerak burutzeko beharrezkoa da alde zuzenetik udal baimena lortzea.

Ez dira baimentzen honako publizitate-ekintza hauek:

- a. Ibilgailuen joan-etorria edo oinezkoen segurtasuna arriskuan jar dezakeen iragarkieuskarrik jartzea.
- b. Bide publikoan pintadak edo piktogramak egitea: Galtzadan, espaloietan, zintarran, plazetan, pasealekuetan, zehaztutako, faroletan, zutabeetan, etxeen fatxadetan, paretetan, eta abarretan.
- c. Guztiz debekatuta daude kola edo antzeko produktuen bat erabiliz itsatsitako iragarkiak, baita udaletxeko zein tenpluetako paretetan, bustoetan, monumentuetan, eta abarretan egindakoak ere.

28. artikulua. Publizitatea kentzea.

Mutrikuko Udalak herritar eta elkarten iragarkietarako gune bereziak egokituko ditu. Iragarki edo/eta publizitatea egokitutako guneetatik kanpo jartzea debekatuta egongo da. Mutrikuko udalak, egoki ikusten badu, iragarki guneen kudeaketa aratu dezake.



Mutrikuko Udala

29 artikulua. Kanpatzeak.

1. Mutrikuko udalerrri osoan ezin izango da kanpatu eta kanpin dendak edo horretarako egokitutako ibilgailuak jarri. Era berean, ezin izango da bide publikoan janaria prestatu ezta, ekar dezakeen arriskuagatik, surik edo barbakoarik egin ere. Salbuespena egingo da aurretik eskatutako eta udalak baimendutako ekitaldietan.

2. Agintaritzaren Agenteek bide publikoa okupatzen duten kanpin dendan, ibilgailuen edo beste edozein eratako materialen jabe edo erabiltzaileei jokabide hori aldatzeko eskatuko diete, eta dagokien salaketa ere egin diezaiekete. Ezezkoa emanez gero, edo jabeak edo erabiltzaileak aurkitu ezin badira, Agintaritzaren Agenteek beharreko bideak erabili ahal izango dituzte elementu horiek berehala erretiratzeko, eta sortutako gastuak jabeek ordainduko dituzte.

Arau orokor gisa, egin beharreko garbiketa inplikaturako jabe edota titularrek egiten ez badute, udal zerbitzuek egingo dute, baina gastuak haiek ordainduko dituzte.

30. artikulua.

Eraikinen, orubeen, merkataritza lokalen eta bestelakoen eraikitze, berritze edo hobetze lanak egiten dituztenek ezingo dute bide publikoa okupatu, ezta aldi baterako bada ere, aurretik ez badute udal baimenik edo derrigorrezko lizentziarik lortu.

31. artikulua.

Debekatua dago bide publikoan edozein objektu uztea edo pilatzea (horretarako espresuki jarrita dauden egunetan izan ezik). Bide publikoan pilatutako edozein objektu udal zerbitzuek eraman ahal izango dute, eta Udalak horren kostuak behar ez den eran utzitako materialaren titularrari ordainaraziko dizkio.

VII. KAPITULUA HONDAKIN SOLIDOEN BILKETA ZERBITZUA

A. Ezaugarri orokorrak.

32. artikulua.

Edukiontzien bidez etxez etxe biltzen diren hondakinak.

Ordenantza honen ondorioetarako, etxez etxeko zabor bilketaren barruan ondoko hondakin hauek sartuko dira:

A) Etxeko kontsumo eta elikadurak sortutako hondakinak eta detritusak, ontziteria edo beira hondakinak, ontziak, enbalajeak, kartoiak, oinetako eta jantzien hondakinak eta orokorrean edozein etxetan sortutako zaborreria, aurrez jarritako egun, ordu eta lekuetan biltzeko, plastikozko edo antzeko poltsetan sartuta (animalia, euri edo beste arazoiren batengatik zaborrak ez isurtzeko moduan itxita).

B) A atalean aipatutakoen antzeko jatorria dutenak, baina dendetan, industrietan eta zerbitzuetan sortuak, aurreko atalean adierazitako baldintzetan prestatuta.

C) A ataleko berberak, baina hauek jantoki, eskola, eraikin publiko, eliza, jolas gune eta abarretan sortuak, A atalean aipatutako baldintzetan prestatuta.



Mutrikuko Udala

D) Merkatu, feria, festa publiko, etab.en garbiketetatik sortutako hondakinak, A atalean aipatutako baldintzetan prestatuta.

E) Lorategietako hondakinak, A atalean aipatutako baldintzetan prestatuta. (Beti ere bilketa berezia martxan jartzen ez den bitartean).

F) Kale garbiketetan sortutako hondakinak.

33. artikulua.

Kanpoan geratzen dira, eta beraz, etxez etxeko bilketan hartu beharrik ez da egongo, honako hondakin hauek:

—Indusketa produktuak, hareak, lurrak, industrietako errautsak, eta herri lan nahiz pribatuetako zaborrak.

—Edozein pneumatiko mota, estalkiak, industri prozesuetako hondakin plastikoak, bernizak, pinturak, kolak, likido korrosiboak, koipeak eta olioak.

—Bidoiak, lata handiak, zumitzak eta txirbilak.

—Erabiltzen ez diren tresnak: Bizikletak, ume kotxe eta aulkiak, kanpineko aulkiak eta haien armazoiak, autoaren osagaiak, erradiadoreak, butano bonbonak, altzariak, etab.

—Erabiltzen ez diren saneamendu eta eraikuntzako elementu eta tresnak.

—Hildako animaliak, klinika eta ospitaletako infekzio eta anatomi hondakinak.

—Artikulu honetan zehatz-mehatz espezifikatu gabeko hondakinak eta bere ezaugarri bereziak direla eta, ohiko hondakin bilketa zerbitzuak jaso ez ditzakeenak, baldin eta Udalak horrela erabakitzen badu.

—Hiri hondakin toxikoaren legearen eranskinean azaltzen diren elementu kutsagarriak dituzten hondakinak. Hondakin horiek aipatu legeak xedatzen duen kudeaketa izango dute.

—Erradiaktiboak.

34. artikulua. Derrigorrezko zerbitzua.

Udala derrigortuta dago etxez etxeko hondakinen bilketa egitera, eta, hortaz, 5. artikuluan adierazitako materialak biltzeko ardura hartuko du.

35. artikulua. Prestazioak.

Zerbitzu honen eginbeharrak honako hauek dira:

—Hondakinak uzteko tokietatik edo edukiontzietatik bilketa ibilgailuetara eraman eta hustu.

—Hustu ondoren, edukiontzia bere lekuetara itzuli.

—Lan hauen ondorioz bide publikora eroritako hondakinak jaso.

—Hondakinak Transferentzia Gunera eraman eta hustu, han trata ditzaten.

—Edukiontzia egutegi bati jarraituz garbitu, eta presakako beharrei erantzun.

36. artikulua. Zerbitzuaren prestazioa.

Etxeko zaborren bilketa mota guztien maiztasuna Udalak erabakiko du, Udalerriaren interesak kontuan hartuta.

37. artikulua. Larrialdiak.

Larrialdi egoerak ematen direnean, direla gizarte-gatazkak, uholdeak edo ezinbesteko egoeratik zerbitzua eskaintzerik ez dagoenean, eta Udalak alde aurretik jakinarazten badu, bizilagunek ez dituzte aterako hondakinak zerbitzua bere onera etorri bitartean, edo administrazio eskudunak bidezko aginduak eman bitartean.



Mutrikuko Udala

38. artikulua. Herri hondakin solidoen edukiontziak.

Udalaren zerbitzuek erabakiko dute zonalde bakoitzean erabili beharreko edukiontzi mota, kopurua eta kokapena.

Jabetza publikoa duten edukiontziak izanik, administrazio eskudunak berri egingo dituzte hondatu ahala edo gaizki erabiltzeagatik zerbitzurako erabilgarri gertatzen ez direnean.

39. artikulua. Garbiketa.

Udalaren zerbitzuek maiztasun jakin batekin, edo premiazkoa denean, edukiontziak garbitu egingo dituzte.

B. Erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak.

40. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak, betebeharrak eta erantzunkizuna.

Etxebizitza, merkataritza gunea, biltegi azoka, ikuskizunetako lokal, ikastetxe, industri, osasun establezimendu, etab.en jabe edo erabiltzaileek zabor eta gainerako hondakinen bilketa zerbitzua erabiltzeko eskubidea dute eta derrigorrez aipatu zerbitzuko abonatu izan behar dute.

41. artikulua. Erabilpen arauak.

1. Zerbitzuaren erabiltzaileek etxeko hondakinak plastikozko poltsetan atera behar dituzte kalera. Poltsa horiek, behar bezala itxita, Udalak horretarako jarritako edukiontzi normalizatuetan edo horretarako seinalatutako lekuetan utziko dira.

2. Horregatik:

—Poltsek ondo itxita egon behar dute, jarioz gabe. Zaborrak modu desegokian ateratzearen ondorioz isurketarik gertatzen bada, sortutako zikinkeriararen erantzulea erabiltzailea bera izango da.

—Debekatuta dago hondakin likidoak eta urtzeko modukoak ateratzea.

—Hondakinak poltsan sartuta utzi behar dira beti eta ez baldetan, paketetan, kaxetan edo antzeko moduren batean.

—Debekatuta dago hondakinak nonahi uztea. Erabiltzaileak behartuta daude jarritako ordutegian, lekuetan eta moduan uztera.

—Ezingo dira hondakinak bide publikoan manipulatu.

—Debekatuta dago edukiontziak edo bilketa lekuak hondatu edo desitxuratu dezakeen edozein ekintza.

VIII. KAPITULUA. BILKETA BEREZIAK

I. ATALA Gaikako bilketa

42. artikulua.

Apirilaren 24ko 97/11 Edukiontzi eta Hondakinen Legeak eta apirilaren 21ko 98/10 Hondakinen Legeak sustatu egiten dute hondakinen berrerabiltzea eta berreskuratzea, eta prebentzio politika eraginkorraren beharra ikusten dute, hondakinak aprobetxatzeko eta baliabide energetikoak eta lehengaiak optimizatzeko.



Mutrikuko Udala

43. artikulua.

Aurreko artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, Udalak bere esparruan gaikako bilketa antolatu ahal izango du eta, era berean, erabiltzaileei eskatu, hain zuzen, gaika edo ontzi berezietan utz ditzatela, aprobetxa daitezkeen edo bereizita bildu nahi diren hondakinak.

Era horretako hondakinak edukiontzi berezietan utziko dira, ondoren birziklatu ahal izateko.

44. artikulua. Paperaren eta kartoiaren bilketa (edukiontzi urdina).

Aurreko artikuluetan aipatutako helburuak lortzeko, papera eta kartoa biltzeko edukiontzi bereziak jarriko dira.

45. artikulua. Erabilera arauak.

1. Zerbitzuaren erabiltzaileek derrigorrean edukiontzi hauetan utzi behar dute papera zein kartoa.

2. Kartoa sortzen dutenek hau egin behar dute: Kartoa zatituta sartu edukiontzian, gaizki erabiltzeagatik bere funtzionamendua saturatu gabe.

3. Edukiontzi ondoan papera eta kartoa uztea debekatuta dago; beti barruan utzi behar dira. Edukiontzia betea egonez gero, erabilera berdineko edukiontzi hurbilenena utziko da.

4. Papera edo kartoa ez den beste edozer gauza ezin da utzi aipameneko edukiontzietan.

5. Era honetako hondakinak edozein ordutan atera ahal izango dira, baldin eta ez bazaio herritarren ongizateari kalterik egiten.

46. artikulua. Dendetako kartoiaren bilketa.

Merkataritzako kartoiak eta paperak asteazkeneko udalak adierazten dituen ordu eta tokietan utzi behar dira.

Kartoa ahalik eta bolumen txikienarekin utzi behar da.

47. artikulua. Ontzien bilketa (edukiontzi horia).

Aurreko artikuluetako helburuak lortzeko, ontziak biltzeko edukiontzi bereziak jarriko dira.

48. artikulua. Erabilera arauak.

1. Zerbitzuaren erabiltzaileek edukiontzi horietan utzi behar dituzte ontziak.

2. Honako ontzi mota hauek utzi behar dira: Latak, plastikozkoak eta tetrabrikak. Garbi egon behar dira (gomendatzen da uretatik pasatzea bota aurretik), eta tolesturik ahalik eta toki gutxien okupatzeko.

3. Edukiontzi ondoan ontziak uztea debekatuta dago; beti barruan utzi behar dira. Edukiontzia beteta egonez gero, erabilera berdineko edukiontzi hurbilenean utziko da.

4. Aipatutako hondakin mota ez den beste edozer gauza ezin da utzi aipameneko edukiontzietan.

5. Era honetako hondakinak edozein ordutan atera ahal izango dira, baldin eta ez bazaio herritarren ongizateari kalterik egiten.



Mutrikuko Udala

49. artikulua. Beiraren bilketa (edukiontzi berdea).

Aurreko artikuluetako helburuak lortzeko, beira biltzeko edukiontzi bereziak jarriko dira.

50. artikulua. Erabilera arauak.

1. Zerbitzuaren erabiltzaileek edukiontzi berdeetan utzi behar dute beira.
2. Edukiontzi ondoan beira uztea debekatuta dago; beti barruan utzi behar da.
3. Aipatutako hondakin mota ez den beste edozer gauza ezin da utzi aipameneko edukiontzietan. Edukiontzia betea egonez gero, erabilera berdineko edukiontzi hurbilenena utziko da.
4. Era honetako hondakinak edozein ordutan atera ahal izango dira, baldin eta ez bazaio herritarren ongizateari kalterik egiten

51. artikulua. Pilen bilketa.

Pilak (ohizkoak eta botoi modukoak) horretarako bereziki jarrita egongo diren edukiontzietan sartuko dira.

52. artikulua. Erabilera arauak.

1. Zerbitzuaren erabiltzaileek edukiontzi horietan utzi behar dituzte pilak.
2. Edukiontzi ondoan pilak uztea debekatuta dago; beti barruan utzi behar dira.
3. Aipatutako hondakin mota ez den beste edozer gauza ezin da utzi aipameneko edukiontzietan.
4. Era honetako hondakinak edozein ordutan atera ahal izango dira, baldin eta ez bazaio herritarren ongizateari kalterik egiten.

53. artikulua. Bestelakoen gaikako bilketa.

Etorkizunean sor daitezkeen bestelako bilketa berezietan parte hartzeko beharra dute mutrikuarrek.

II. ATALA. Altzari, etxeko tresneria eta traste zaharren bilketa

54. artikulua.

Altzariak, etxeko tresneria eta traste zaharren bilketa ohiko puntuetan eta egunetan izango da.

Debekatuta dago altzariak eta gainerakoak administrazio eskudunaren zerbitzuek jarritako egun eta ordutegitik kanpo uztea edota orube edo terreno pribatu zein publikoetan.

III. ATALA. Enbalajeak

55. artikulua.

Zurezko edo antzeko enbalajeak, paper-kartozkoak izan ezik, Garbigunera eraman beharko dira.



Mutrikuko Udala

56. artikulua.

Paper eta kartoizko ontzi eta enbalajeak edukiontzi edo bilketa toki berezietan utzi behar dira.

IX. KAPITULUA ZIGOR ERREGIMENA

57. artikulua. Arau haustek.

1. Arau hauste administratiboa izango da Ordenantza honek zehaztutako xedapenak ez betetzea eta bertan zehazten diren debekuak urratzea.

2. Alkateak edo hark aukeratutakoak zigortuko ditu Ordenantza honetan xedaturikoaren arau haustek. Betiere, legeriak baimentzen dituen mugen barnean eta kasu bakoitzean egon litezkeen erantzukizun zibil eta penalez gain.

58. artikulua. Arau hauste motak.

1. Arau haustek arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke, honako hauek kontuan hartuta: Nahita egiten den, zibismo ezaz jokatzeko den, zabarkeria maila, pertsonen osasun eta segurtasunerako arriskua, eragindako kaltearen larritasuna.

2. Arau hauste arinak izango dira honako artikulua hauei eginiko arau haustek:

a. 4.2 (a, b, c, f, g, h, i, j).

b. 5 (.1,.2,.3,.4,.5).

c. 6 (a, b, d, g, h, j).

e. Obrako materialak, aldi baterako bada ere, edozein zehaztutako pilatzea.

f. 10, 11,12, 13, 14, 15, 16, 17, 29, 41, 45, 48, 50 eta 52.

g. Jabari publikoko ondasunetan kalteak eragitea, kalte horien zenbatekoa 3.000 eurotik gorakoa ez bada.

3. Arau hauste larriak izango dira honako artikulua hauei eginiko arau haustek:

a. 4.2 (d, e).

b. 7, 19, 20, 21, 22, 23, 24, 25, 26, 30, 31.

c. 28 eta 29. artikuluetan xedatutakoa es betetzea.

d. Jabari publikoko ondasunetan kalteak egitea, kalte horien zenbatekoa 3.000 eurotik gorakoa eta 10.000 eurotik beherakoa bada.

e. Oinezkoentzako plazetan eta espaloietan ziklomotorean eta motozikletan, patin motordunetan eta edozein ibilgailu motordunetan ibiltzea.

f. Agintaritzaren Agenteek emandako agindu bat ez betetzea, Ordenantza honen zehaztutakoak betetzeko eskakizunari loturik badago, baldin eta arau hauste horrek delitu izaera.

4. Arau hauste oso larriak izango dira honako hauek:

a. Zuhaitzak eta zuhaixkak botatzea, kimatzea eta haustea edo haiek hil ditzakeen edozein ekin-tza egitea.

b. Zuhaitzetan edozein eratako produktu toxiko isurtzea.

c. Jabari publikoko ondasunetan kalteak egitea, kalte horien zenbatekoa 10.000 eurotik gorakoa bada.



Mutrikuko Udala

59. artikulua. Isunak.

1. Arau hauste arinei 60 eta 750 euro arteko isuna jarriko zaie eta, edozein elementu urbano aldatu behar izanez gero, horren kostua ordainaraziko da.
2. Arau hauste larriei 751 eta 1.500 euro arteko isuna jarriko zaie eta, edozein elementu urbano aldatu behar izanez gero, horren kostua ordainaraziko da.
3. Arau hauste oso larriei 1.501 eta 3.000 euro arteko isuna jarriko zaie eta, edozein elementu urbano aldatu behar izanez gero, horren kostua ordainaraziko da.
Zenbateko horiek dagokion sektore araudiak zehazten dituen isunez gain aplikatuko dira.
4. Ordenantza honen beste edozein ez betetze 60 eta 750 euro arteko isunarekin zigortuko da, isun gisa zenbateko ekonomikoa bereziki zehaztuta ez duten kasuetan, aurreko artikulua honi loturik zehaztutakoaren arabera.
5. Jartzen diren isunak alde batera utzita, behar bezala ordainduko dira jabari publikoko ondasunetan egindako kalteak, eta baita eragindako galerak ere, hori guztia dagokien udal zerbitzuek aurrez ebaluatu ondoren. Kalte eta galera horien zenbatekoa modu betearazlean zehaztuko du isuna jartzeko eskumena duen organoak.

X. KAPITULUA ESKUMENA

60. artikulua. Organo eskuduna.

Alkateari dagozkio Ordenantza honen helburu diren jardunbide zigortzaileak hasteko eta ebazteko eskumenak eta, hala balegokio, honek erabakitzen duen ordezkariak edo deskontzentrazio organoak egikaritu ahal izango ditu.

Tokiko Udaltzainaren Unitate Administrazioari dagokio instrukzioa.

61. artikulua. Arau-hauste taula.

Alkateak, edo hala balegokio, eskuordetze edo deskontzentrazioz jarduten duen organoak, ordenantza honen inguruko arau-hauste arrunten taula bat onartu ahal izango du, baita aplikatu beharreko zigorrak ere, aldibereko inguruabarrak direla-eta, hauek makur daitezkeeneko modulazioaren kalterik gabe.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA.

Indargabe geratzen dira udal arau eta xedapen guztiak, Ordenantza honetan xedatutakoaren kontra egiten dutenari dagokionez.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta handik 15 egunetara jarriko da indarrean.